

MAKROPROIEKTU HONEK URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBA MEHATXATZEN DU

Urdaibaiko Biosfera Erreserba, **Euskadin dugun Biosfera Erreserba bakarra da.**

1984. urtean UNESCOk izendapena eman zion eta gaur egun, hainbat dira Biosfera Erreserba honi babes neurriak ematen dioten eta indarrean dauden lege eta hitzarmenak:

- 5/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzkoa.
- Natura 2000 sarea (HBBE eta Estuarioko KBE)
- Ramsar hitzarmena (1993tik, nazioarteko mailakoa)



NOLA FINANTZIATUKO DA?

Museo pribatu hau diru publikoarekin finantzatuko da

2023ko ekainaren 18an jakitera eman zen Cooper Roberston New Yorkeko arkitektura estudioak 130M€tan baloratzen zuela proiektua abian jartzeko inbertsioa.

- **40 M€ BFAak jarri ditu.** 2022ko azaroaren 10ean argitaratu zen Unai Rementeriak 40 milioi «blindatzen» zituela Urdaibaiko Guggenheim «egiten denean» erabiltzeko. Diru partida erreserbatuta gelditu zen 2023an erabiliko ez zela jakinda ere, eta **beste 10 milioi** bideratu zituen museoak kokatuko diren lurzorua, kutsatuta egon daitezkeen aztertzeke.

- **40 M€ Espainiako Gobernuko Trantsizio Ekologikoko ministeritzatik** etorri dira. Teresa Riberak BFArekin sinatutako **hitzarmen** bati esker lortutako dirulagintza da eta Urdaibaiko estuarioaren inguruan garapen iraunkorreko jarduera bereziak bultzatzeko litzateke. Hitzarmen honek 13 ekintza zehatz jasotzen ditu.

-**50M€ falta dira.** Suposatzen da diru hau **Eusko Jaurlaritzak jarriko duela baina beti be hauteskundeak eta gero.** 2023ko azaroan jakin zen Eusko Jaurlaritzak proiektu honekiko atxekimendua hauteskundeak eta gerorara atzeratuko zuela, lurraldeen arteko tirabirarik ez sortzeko.

- **Astilleros de Murueta SAk okupatzen dituen lurrak erostea oraindik ez dute kuantifikatu.**

Ez dezagun ahaztu Guggenheim marka bat besterik ez dela, New Yorken ezarrita dagoen frankizia bat.

PROIEKTUARI KOKAPENA EMATEKO MOMENTUZ EGOKITZEN ARI DIREN NORMATIBAK

1.- Markina- Gernika (LPP) Lurralde Plan Partzialaren aldaketa

Gernika-Markinako indarreko LPPa Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 1eko 31/2016 Dekretuaren bidez onartu zen.

Egun indarrean dagoen plan honen arabera, Guggenheim Urdaibai proiektuak proposatzen duen makroproiektu museistikoak ez luke kokapen legalik izango eskualdean.

Kokapena eman behar zaionez, LPPa moldatzen da.

2.- Kostas legearen jabari publikoaren ebazpena

2021eko Urriaren 8an BFAak eskari ofiziala egiten dio Trantzizio Ekologikoko Ministeritzari (MITECO), M-87 eta M-124 puntuen arteko 950m inguruetan, zortasun- babesaren mugaketa zuzentzeko, 100 metro izatetik, 20 metro izatera pasatzeko eskatuz.

Ebazpena 2023ko urriaren 19an sinatzen da eta azaroaren 21ean publikatu. BFAren eskaera onartzen da.

Orain arte, indarrean zegoen Kostaldeei buruzko Legeak galarazi egiten zuen itsasertzetik 100 metro baino gutxiagora eraikitzea, ezinezko eginez Guggenheim museoa eraikitzea Astilleroa dagoen lurretan. Orain, oztopo bat gutxiago dute helburua lortzeko.

3.- Muruetako HAPOaren moldaketa

Aurretik aipatu bezala, Museoa kokatzeko espazioa lortzea kontu bat da eta beste bat, eremu horretako **lursailak duen kalifikazioa museo bat kokatzeko egokia izatea.**

Astilleroak okupatzen dituen lurrak, **industrial kalifikazioa** dute eta museo bat kokatzeko kalifikazioa, ekipazionala izan beharko litzateke. **Zelan lortu kalifikazio aldaketa hau? Murueta udalerriko HAPO berria proposatuz. Urriak 9an aurkeztu zan publikoki.**

4.- 2024-02-20an Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana aldatzeko Dekretua onartzen da.

MASA TURISMOA SUSTATZEN DU DAGOENEO SATURATUTA DAGOEN GUNE BATEAN

Inguruaren karga ahalmena 2018tik dago gaindituta.

Un informe del Gobierno vasco alerta sobre la alta carga turística en Urdaibai



Teia
BIZKAIA · BILBAO · ASTE NAGUSIA · BARRIOS
El barco 'Duch Spirit' estará también operativo este verano para llevar agua a Urdaibai

- Turista asko, espazio txikian
- Hondartzak, gainezka
- Estuarioa gainezka
- Mugikortasuna, zaila
- Garraio publikoa, eskasa
- Ur ornidura arazoak

INPOSIZIOAN ETA INFORMAZIO FALTAN OINARRITUTAKO PROIEKTUA.

- Herritarrei bizkarra emanez diseinatu.
- Herritarrei, elkarteei eta administrazioei informazioa ukatuz eta ezkutatuz bultzatua.

Eskualdearen beharrei erantzun beharrean,
Museo pribatu baten beharrei erantzuten dio.

- Diru publikoz bakarrik finantziatuko da.
- Biosfera Erreserba bezalako eremu zaurgarri batean, ingurumen-arriskuak onartzen ditu zuhurtziaren printzipioa alde batera utziz.
- Biosfera Erreserbaren aukeraketa, bere balio naturalean oinarritzen dute, Gernikako bonbardaketaren sinbologia, Donejakue bidearen kokapena edo Gaztelugatxen

hurbiltasuna ere aipatzen dira. Ondare naturala, kulturala eta historikoa salduz.

- Museoa 4 hilabetez bakarrik zabaltzeak, lan esparruan ezegonkortasuna eta aldibaterakotasuna bultzatzen ditu.
- Vidartek dioen bezala, “desbroze administratiboa” egitea beharrezko da, bestela indarrean dauden legeek ez diote kokapenik ematen. Beraz, legez kanpo dago.
- Masa turismoan oinarritzen da.
- Greenwashing kanpaina martxan jarri behar izan dute proiektua zuritzeko.

Guggenheim Urdaibai Stop Plataformaren sare sozialak:



[Guggenheimurdaibaistop](#)



[Guggenheimurdaibaistop](#)



[GuggenheimUrdaibai](#)



guggenheimurdaibaistop@gmail.com



<https://guggenheimurdaibaistop.info/>

[Sinatu Guggenheim Urdaibai Proiektua gelditzeko!](#)



Peticiones.net


**LAGUNDU ASTAKERIA HAU EPAITEGIETAN
GELDITZEN!**

**TANTAZ TANTA OLATU ERRALDOIA ERATUKO
DUGU PROIEKTU HAU EZABATZEKO!**

2095 0130 20 9123630854

BIZUM 09153

GUGGENHEIM URDAIBAI



PROIEKTUA ZATIKA AURKEZTU DU BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK

Zergatia: proiektu osoa aurkeztuz gero, ingurumenean eragingo lukeen inpaktua jasanezina, onartezina eta justifikaezina izango litzateke.

Makroproiektu honek urtean 150.000 bisitari ekarriko lituzke Busturialdera, ekaina eta iraila bitartean. Eskualdean, 45.000 biztanle gara eta udaro bertora hurbiltzen direnak gehituta, zenbaki beldurgarria da hilero jasoko litzatekeena.

Astakeria honen bultzatzaileek Guggenheim Urdaibaik ingurumen-iraunkortasunetik baino ez duela zentzua esaten dute behin eta berrito, eta argi dagoena da turismo masifikatua eta ingurumen-iraunkortasuna ez direla bateragarriak. Honela, proiektu honek ez du inoiz zentzurik izan.